BIDEBERRI MANKOMUNITATEAREN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA		**PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA CONTRATAR MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO EL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA DE LA MANCOMUNIDAD DE BIDEBERRI**
I. KONTRATUAREN HELBURUA ETA ALDERDI OROKORRAK		**I.- OBJETO Y CUESTIONES GENERALES DEL CONTRATO**
1. BALDINTZA.- Kontratuaren helburua eta beharra.		**CLÁUSULA 1ª.- Objeto y necesidad del contrato**
1.1.- Kontratuaren helburua: Helburua Bideberri Mankomunitatean (Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako Udaletan) ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ematea izango da, espedientean dagoen dokumentazio teknikoaren arabera, kontratu izaera izango duena. Lan kopurua ez da aurrez zehazten, eta beraz, kontratuaren iraupen epean kontratistari adierazitako beharren kuantifikazioaren menpe gelditzen da. Helburuari Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturaren kode hau dagokio: **85312000-9 (Ostaturik gabeko gizarte laguntzako zerbitzuak).**		**1.1.- Objeto del contrato:** El contrato tendrá por objeto la prestación del SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO de la Mancomunidad Bideberri (Antzuola, Elgeta y Leintz Gatzaga), de conformidad con la documentación técnica que figura en el expediente, que tendrá carácter contractual. La totalidad de trabajo a realizar no se determina de antemano, quedando, por tanto, subordinada su cuantificación a las necesidades que se manifieste al contratista durante el plazo de duración del referido contrato. Dicho objeto corresponde al código**.: 85312000-9: servicios de asistencia social sin alojamiento,** de la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (CPV) de la Comisión Europea.
1.2.- Erakunde kontratatzailea: Erakunde kontratatzailea Bideberri Mankomunitatea da.		**1.2.- Entidad contratante:** La entidad contratante es la Mancomunidad Bideberri
1.3.- Sortak: EZ. Ez da aurreikusten sortatan lizitatzea, zerbitzu integral, homogeneo eta oso gisa hartzen delako bere xedearen izaera kontuan hartuta, baldintza teknikoen agirian aipatzen diren aurreikuspenen eta edukiaren arabera. Eta horrek egikaritzea osotasunean koordinatzeko eta zuzentzeko beharra dakar, ezinezko gerta daitekeena sortatan banatu eta hainbat kontratistak egikarituz gero.		**1.3.- Lotes: NO.** No se prevé su disposición en lotes en razón a su tratamiento como servicio integral, homogéneo y completo, dada la naturaleza de su objeto conforme a las previsiones y contenido que refiere el pliego de prescripciones técnicas, implicando la necesidad de coordinar y dirigir su ejecución con un tratamiento conjunto, cuestión que podría verse imposibilitada por su división en lotes y ejecución por una pluralidad de contratistas diferentes.
1.4.- Kontratuarekin bete nahi den beharra: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko		**1.4.- Necesidad a satisfacer mediante el contrato:** La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía de acceso a las prestaciones y servicios del Sistema

asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan. 22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die. Eman gura den zerbitzuarekin oinarrizko laguntza eman nahi zaie beraien etxean eta beraien komunitatean menpekotasun egoeran dauden edo menpekotasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonei eguneroko bizitza errazagoa egiteko, beraien egoera pertsonalean eta familiakoan laguntzeko, laguntza hori ezinbestekoa denean bizi kalitatea izan eta lana eta familia bateratzeko, bereziki, emakumeen kasuan. Era berean, lanean etekin egokia eta probetxugarria lortzeko lan giro ona eta lan baldintzak oinarrizkoak direla kontuan izanik, eta baita ere zerbitzua ematen duten profesionalen gogobetetasunak eragin zuzena duela zerbitzuaren kalitatean, gutxieneko lan baldintza batzuk indartzea nahi dira kalitatea hobetzeko eta lana eta familia bateratzeko.		Vasco de Servicios Sociales, dentro del marco de los requisitos generales de acceso al mencionado sistema y de los requisitos de acceso específicos que se regulen para cada prestación o servicio. En su artículo 22 define el Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, entre los que incluye el Servicio de Ayuda Domiciliaria, cuya provisión es competencialmente atribuida a los Ayuntamientos. Con el servicio a prestar se pretende dar atención básica en su propio domicilio y en su propia comunidad a las personas en situación de dependencia o en riesgo de dependencia, para hacerles la vida diaria más llevadera, para proporcionar apoyos para la convivencia personal y familiar en un contexto en el que estos apoyos son imprescindibles para la calidad de vida y para la conciliación de la vida familiar y laboral, particularmente en el caso de las mujeres. A su vez, con la consideración de que el ambiente y las condiciones de trabajo son piezas fundamentales para un adecuado y satisfactorio rendimiento en el trabajo, que la satisfacción laboral de los/as profesionales que prestan este servicio tiene un impacto directo en la calidad del mismo, es por lo que también se trata de reforzar unas condiciones mínimas laborales con las que mejorar la calidad y conciliación en el empleo.
2. BALDINTZA. Kontratatzailearen profila.		**CLÁUSULA 2ª. Perfil del contratante.**
Gardentasuna eta kontratuko jarduerari buruzko informazioa publikoa izango dela bermatzeko, eta bestelako publizitate bideak erabiltzearen kaltetan gabe, Bideberri Mankomunitateak kontratatzailearen profila du, eta bertara sartzeko ondorengo orrian araututakoari jarraiki egin beharko da: www.contratación.euskadi.eus		Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, la Mancomunidad Bideberri cuenta con el Perfil de la parte Contratante al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página siguiente: www.contratación.euskadi.eus
3. BALDINTZA. Egikaritze epea.		**CLÁUSULA 3ª. Plazo de ejecución.**
Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita, eta beste 3 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du LAU URTE baino gehiago iraun. Luzapena urtero egin beharko da, eta berariaz erabaki beharko du kontratazio organoak. Derrigorrezkoak		Teniendo en cuenta lo dispuesto en el art. 29 de la Ley de Contratos del Sector Público, el plazo de duración del presente contrato será de UN año a contar desde la fecha de la firma del contrato y podrá ser prorrogado por tres años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de CUATRO AÑOS. La prórroga será anual y deberá ser acordadas expresamente por el órgano de contratación. Serán

izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera. Aurreko baldintzetan ezarritakoa gorabehera, kontratu bakoitzaren epemugan ez bada formalizatu zerbitzu hori ematen jarraituko dela bermatzen duen kontratu berria esleipen-prozedura berrian kontratazio-organoarentzat aurreikusi ezin diren gertakarien ondorioz, eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak badaude, kontratua luzatu ahal izango da kontratu berria gauzatzen hasi arte, gehienez ere sei hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, eta betiere kontratu berriaren lizitazio-iragarkia kontratu honen amaiera-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratu bada.		obligatorias para la empresa, siempre que su preaviso se produzca con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato y no concurra la circunstancia prevista en el último párrafo del apartado 2 del art. 29 de le LCSP2017. No obstante lo establecido en los apartados anteriores, cuando al vencimiento de cada contrato no se hubiera formalizado el nuevo contrato que garantice la continuidad de la prestación de este servicio como consecuencia de incidencias resultantes de acontecimientos imprevisibles para el órgano de contratación producidas en el nuevo procedimiento de adjudicación, y existan razones de interés público para no interrumpir la prestación, se podrá prorrogar el presente contrato hasta que comience la ejecución del nuevo contrato, por un periodo máximo de seis meses, sin modificar las restantes condiciones del contrato, y siempre que el anuncio de licitación del nuevo contrato se haya publicado con una antelación mínima de tres meses respecto de la fecha de finalización de este contrato.
4. BALDINTZA. Kontratuari kalkulatutako balioa eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.		**CLÁUSULA 4ª. Valor estimado y presupuesto base de licitación del contrato**
Kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko, gutxi gorabehera urtean 10.000 zerbitzu-ordu emateko aurreikuspena hartu da kontuan, loteslea ez dena. Ordu horiek bermatzen ez direnez, esleipena eskainitako unitateko prezioetan egingo da. Kontratuaren balio zenbatetsia, luzapenak barne, horrelakorik balego, honako hau da: 4 urte – 1.307.400 € (BEZ kanpo). Lizitaziorako ondoren esango diren tipoak ezartzen dira, BEZik gabe. Prezio horiek behera hobetu ahal izango dituzte enpresa lizitatzaileek beraien eskaintzetan. Eskaintzak aurkezteko 11. baldintzan ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharko dira eskaintzak: **Lanegunetako orduko prezioa:** a)Kontratuko lehen urtean: 29,80+BEZ%4=30,99 € b)Kontratuko bigarren urtean: 32,10+BEZ%4=33,38 € c)Kontratuko hirugarren urtean: 34,42+BEZ%4=35,79€ d)Kontratuko laugarren urtean: 34,42+BEZ%4=35,79€		Para el cálculo del valor estimado del contrato se ha tenido en cuenta una previsión estimativa, orientativa y no vinculante de 10.000 horas anuales de servicios. Dado que no se garantizan dichas horas, la adjudicación se realizará a los precios unitarios ofertados. El valor estimado del contrato incluidas prorrogas si se produjeran, es el siguiente: 4 años – 1.307.400 € (IVA excluido). Se establecen los siguientes tipos de licitación, IVA excluido, cantidades que podrán ser mejoradas a la baja en sus ofertas por las empresas licitadoras, y que deberá de ser presentado de acuerdo al modelo de presentación de ofertas incluido en la cláusula 11ª: **Precio hora días laborales:** a) Primer año de contrato: 29,80+4%IVA=30.99 € b) Segundo año de contrato: 32,10+4%IVA=33,38 € c) Tercer año de contrato: 34,42+4%IVA=35,79 € d) Cuarto año de contrato: 34,42+4%IVA=35,79 €

Zifra horiek dira beheranzko eskaintzek izango duten gehieneko zenbatekoa, eta kopuru hori gainditzen duten eskaintzak automatikoki baztertuko dira. Kontratuaren prezioak orduko kontratatutako zerbitzuak behar bezala egiteko behar diren kontzeptu guztiak bilduko ditu, hala nola orokorrak, finantzarioak, mozkinak, aseguruak, joan-etorriak, lekualdatze-denbora, bere ardurapeko teknikarien ordainsariak eta zergak. Jaiegunetako lanorduaren prezioa kalkulatzeko egunezko lanordu arruntaren prezioari % 19 igoko zaio . Jaiegunetako lanordutzat hartuko da igandetan edo jaiegunetan, Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialki onartzen den jaiegunen egutegiaren arabera egiten dena. Kontratatutako eta enpresak fakturatu beharreko ordua 60 minutuko lan presentzial eta erreala da, erabiltzailearen etxean eta/edo laguntza-zereginetan, eta hori lizitatzaileek eskaintzen duten orduaren prezioa izango da.		Estas cifras constituyen la cantidad máxima sobre la que versarán las ofertas a la baja, suponiendo la exclusión automática de aquellas ofertas que superan dicha cantidad. El precio/hora del contrato comprenderá todos los conceptos necesarios para la correcta realización de los servicios contratados, tales como generales, financieros, beneficios, seguros, desplazamientos, tiempo de traslado, honorarios de personal técnico a su cargo y tributos. El precio de la hora de trabajo festiva será el resultado de incrementar al precio de la hora de trabajo diurna ordinaria un 19%. Se considera hora de trabajo festiva la que se realiza en domingo o día festivo, según el calendario de fiestas que se apruebe oficialmente para el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La hora contratada y a facturar por la adjudicataria es una hora de sesenta minutos de trabajo presencial y real en el domicilio y/o tareas de acompañamiento de la persona usuaria del servicio y ello corresponderá al precio horas que se oferte por las licitadoras.
5. BALDINTZA. Kontratuaren prezioa.		**CLÁUSULA 5ª. Precio del contrato.**
Kontratuaren prezioa esleipenekoa izango da, eta ezingo du gainditu Administrazioak ezarritako lizitazio tipoa. Ondorio guztietarako ulertu beharko da kontratuaren prezioan sartuta daudela kontratatutako zerbitzua normal betetzeko enpresa kontratistak egin beharko dituen gastu zuzen eta zeharkako guztiak, indarrean dauden xedapenen arabera ezarri ahal diren beste edozein tasa eta udaleko, lurralde historikoko zein estatuko edozein motako zerga eta lizentziak.		El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y no podrá superar el tipo de licitación formulado por la Administración. A todos los efectos, se entenderá que el precio del contrato comprende todos los gastos directos e indirectos que la empresa contratista deba realizar para la normal ejecución de la prestación contratada, y cualesquiera otras tasas que resulten de aplicación según las disposiciones vigentes, y toda clase de impuestos y licencias tanto municipales, como provinciales y estatales
6. BALDINTZA. Kreditua izatea.		**CLÁUSULA 6ª. Existencia de crédito**
SPKLren 3. xedapen gehigarriaren babesean, kontratazio espediente hau aldez aurretik izapidetzen da, eta beraz, esleipena eten ahal izango da dagokion ekitaldian kontratu honetatik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa ez badago. Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.		Al amparo de lo establecido en la D. Adicional 3ª de la LCSP, este expediente de contratación se tramita anticipadamente por lo que la adjudicación del contrato queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio correspondiente. Asimismo, los órganos competentes de cada entidad en materia presupuestaria se comprometen a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

7. BALDINTZA. Prezioak berraztertzeko erregimena.		**CLÁUSULA 7ª. Régimen de revisión de precios.**
Martxoaren 30eko 2/2015 Legea –Espainiako ekonomiaren desindexazioarena– garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta sektore publikoko kontratuen prezioa berraztertzeko baldintzak arautzen dituen SPKLren 103. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honetan ez da aplikagarria aipatutako berrazterketarik.		De conformidad con lo establecido en el art. 8 del Real Decreto 55/2017, de 3 de febrero, por el que se desarrolla la Ley 2/2015, de 30 de marzo, de desindexación de la economía española, y el artículo 103 LCSP, que regulan los requisitos para que proceda la revisión de precios en los contratos del sector público, a estos contratos *no resulta* aplicable la citada revisión.
II. - KONTRATAZIOA.		**II.- CONTRATACIÓN.**
8. BALDINTZA. Esleipena egiteko prozedura.		**CLÁUSULA 8ª. Procedimiento de adjudicación.**
2017ko SPKLren 156. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, hainbat esleipen irizpideri jarraiki, baldintza orri honetako 16. baldintzan ezarritakoaren arabera.		De conformidad con lo dispuesto en el artículo 156 y siguientes de la LCSP 2017, los contratos se adjudicarán por procedimiento abierto, y se realizará atendiendo a una pluralidad de criterios de adjudicación, según lo dispuesto en la cláusula 16ª del presente pliego.
9. BALDINTZA. Kontratatzeko gaitasuna eta egiaztatzea.		**CLÁUSULA 9ª. Capacidad para contratar y acreditación.**
Kontratu honen esleipenean parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, indibidualki edo aldi baterako enpresa-batasuna eratuta, baldin eta kontratatzeko debekuren bat ez badute eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badituzte (edo, hala badagokio, behar bezala sailkatuta baldin badaude). Aurreko paragrafoan esandakoaren kalterik gabe, berariaz ezartzen zaie kontratatzeko debekua ondorengo egoeraren batean dauden pertsonei edota erakundeei: a) Zigor irmoa jaso izana arau-hauste larria egiteagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera, arlo profesionalean, lehia faltsutzearenean, lan-merkatuan integratzearenean, aukera berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonak ez baztertzekoarenean eta atzerritarrenean.		Podrán optar a la adjudicación las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, a título individual o en unión temporal de empresas, que tengan plena capacidad de obrar, que no estén incursas en alguna prohibición de contratar y que acrediten su solvencia económica, financiera y técnica [o se encuentren debidamente clasificadas, *en su caso).* Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior, de forma expresa se establece la prohibición para contratar a las personas y/o entidades que concurran en alguna de las siguientes circunstancias: a) Haber sido sancionada con carácter firme por infracción grave en materia profesional, de falseamiento de la competencia, de integración laboral y de igualdad de oportunidades y no discriminación de las personas con discapacidad, o de extranjería, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

b) Zigor irmoa jaso izana arau-hauste oso larria egiteagatik lan edo gizarte arloan, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baita testu horretako 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste larriarengatik ere. c) Bereziki, ezingo dute kontratua egin ezta lizatazioan parte hartu ere lan harreman indibidual edota kolektiboen arloan arau-hauste oso larria egiteagatik zigor irmoa jasotako pertsona fisiko edo juridikoek, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bateginaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, zehazki, 8. artikuluko 13. idatz-zatia ez betetzeagatik enpresaren zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren arloan sexu-jazarpena gertatutakoan. Gainera, enpresa esleipendunak beraien helburuak edo jarduerak kontratuaren helburuarekin harreman zuzena duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira, eta kontratua behar bezala betetzeko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak izan beharko dituzte. Europako Batasunetik kanpoko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.		b) Haber sido sancionada con carácter firme por infracción muy grave en materia laboral o social, de acuerdo con lo dispuesto en el Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2000, de 4 de agosto, así como por la infracción grave prevista en el artículo 22.2 del citado texto." c) En particular, no podrán contratar ni participar en la licitación las personas físicas o jurídicas que hubieran sido sancionadas con carácter firme por infracción muy grave en materia de relaciones laborales individuales y colectivas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7 del Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, concretamente por el incumplimiento del apartado 13 del artículo 8 por acoso sexual cuando se produzca dentro del ámbito a que alcanzan las facultades de dirección empresarial. Además, las empresas adjudicatarias deberán ser personas físicas o jurídicas cuya finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato y disponer de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato. Las empresas extranjeras no comunitarias deberán reunir además los requisitos establecidos en el artículo 68 LCSP 2017.
10. BALDINTZA. Sailkapena eta kaudimena.		**CLÁUSULA 10ª. Clasificación y Solvencia.**
Zerbitzu kontratua denez, SPKLren 77. artikuluaren arabera, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik eskatzen. <u>Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesionala edo teknikoa:</u> akreditazio dokumentala: <u>A.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:</u> A.1.- Lizitatzailearen edo izangaiaren urteko negozio bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio bolumen handieneko urtekoa aintzat hartuta, kontratuari kalkulatutako urteko balioaren % 70a izan beharko da. A.2.- Arrisku profesionalen kalte-ordainen asegurua duela egiaztatzen duen ziurtagiria. Aseguru hori baldintza agiri honetan eskatutako kopuruarengatik edo handiagoagatik izan beharko da.		Al tratarse de un contrato de servicios, de conformidad con el art. 77 LCSP, no se exige Clasificación. <u>Solvencia económica y financiera, y profesional o técnica:</u> Acreditación documental: <u>A.- Solvencia económico-financiera</u>: A.1.- Volumen anual de negocios de la parte licitadora o candidata, que referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos deberá ser al menos el 70% del valor anual estimado del contrato. A.2.- Justificante de la existencia de un seguro de indemnización por riesgos profesionales por importe igual o superior al exigido en el presente pliego.

B.- Kaudimen teknikoa eta profesionala: B.1.- Azken hiru urteetan egindako etxez etxeko laguntza zerbitzuen zerrenda, eta bertan adierazita diru zenbatekoa, datak eta publikoak edo pribatuak izan diren. Bakoitzari buruzko ziurtagiriak ere erantsi beharko dira. Ez dira onartuko enpresa lizitatzaileen proposamenik etxez etxeko laguntzan gutxienez urteko 6.500 ordu egin izana ez badute egiaztatzen azken hiru urte horietako urteren batean. Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera; betiere, egiaztatzen baldin badu kontratuaren egikaritze denboran kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta horiek utzitako erakundeak ez baldin badu kontratatzeko inolako debekurik. Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako batuketetan parte hartzen duten enpresek aldi baterako batuketatik kanpoko kaudimen eta baliabidetara jo ahal izango dute. B.2.- Zerbitzuari atxikitako langileei dagokienez, enpresa kontratistako profesional eta langile guztiek arlo horri dagozkion prestakuntza eta tituluak izan beharko dituzte, indarrean dagoen legeriak ezarritakoaren arabera. Euskararen ezagutzari dagokionez: – Enpresa esleipenduneko koordinatzaileak Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko ahozko maila egiaztatu beharko du. – Zuzeneko Etxez etxeko langileen kasuan, hala eskatzen den kasu guztietan enpresak zerbitzua euskaraz eskaini ahal izatera heltzeko Plana aurkeztu beharko du.		B.- Solvencia técnica y profesional: B.1.- - Relación de los principales servicios de ayuda domiciliaria realizados durante los tres últimos años, indicándose su importe, fechas y destino público o privado, a la que se incorporarán los correspondientes certificados sobre los mismos. No serán admitidas las propuestas de empresas licitadoras que no acrediten la realización de servicios de ayuda domiciliaria por un mínimo de 6.500 horas anuales durante al menos uno de los 3 últimos años. Para acreditar la solvencia necesaria para celebrar un contrato determinado, la empresa podrá basarse en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tengan con ellas, siempre que demuestre que durante toda la duración de la ejecución del contrato dispondrá efectivamente de esa solvencia y medios, y la entidad a la que recurra no esté incursa en una prohibición de contratar. En las mismas condiciones, las empresas que concurran agrupadas en las uniones temporales a que se refiere el artículo 69 LCSP 2017, podrán recurrir a las capacidades ajenas a la unión temporal. B.2.- Respecto al personal adscrito al servicio, se requiere que todas las personas profesionales y trabajadores de la empresa contratista cuenten con la formación y títulos correspondientes en esa materia según marque la legislación vigente. En lo que respecta a conocimientos de euskera: – La persona coordinadora del servicio deberá de acreditar un nivel hablado de euskera equivalente al C1 del Marco Común Europeo de Referencia. – En el caso del personal directo del servicio de Ayuda Domiciliaria, la empresa deberá presentar un Plan para llegar a poder ofrecer el servicio en euskera en todos los casos en los que se solicite.
11. BALDINTZA. Proposamenen aurkezpena, era eta edukia.		**CLÁUSULA 11ª. Presentación, forma y contenido de las proposiciones.**
11.1. Interesdunen proposamenak.		**11.1. Proposiciones de la parte interesada.**

Interesdunen proposamenak lizitazioa arautzen duten baldintza agiri eta dokumentuetara egokitu beharko dira, eta behin proposamenak aurkeztuta, enpresariak inolako baldintzarik gabe onartzen ditu baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreparorik gabe; eta era berean, baimena ematen die kontratazio mahaiari eta organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Orokorrean edo Europako Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko. Proposamenak ezkutukoak izango dira, eta bitartekoak jarriko dira ireki arte izaera hori gorde dezaten bermatzeko. Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako enpresan batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu edo aldi baterako enpresa bat baino gehiagoko partaide baldin bada. Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.		Las proposiciones de la parte interesada deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por la empresa del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones. Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas suscritas.
11.2. Publizitatea. Kontratuaren lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da (kontratazio plataforman).		**11.2. Publicidad** El anuncio de licitación del contrato precisará de publicación en el perfil de contratante (plataforma de contratación).
11.3. Proposamenak aurkezteko lekua eta epea. Lizitazio hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Bideberri Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean iragarriko da. Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bidez, 26 egun naturaleko epean aipatutako iragarkia Euskadiko Kontratazio Plataforman argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bideberri Mankomunitateko kontratatzailearen profilera ondorengo helbidetik sartu ahal izango da: https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/. Leku horretan eskuratu ahal izango dira ere baldintza		**11.3. Lugar y plazo de presentación de las proposiciones.** La presente licitación será anunciada en el perfil de contratante de la Mancomunidad Bideberri, alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. Las proposiciones deberán presentarse electrónicamente a través de la citada Plataforma, durante el plazo de 26 días naturales, contados a partir del siguiente a la fecha de publicación del anuncio en la Plataforma de Contratación de Euskadi. El acceso al perfil de contratante de la Mancomunidad Bideberri se podrá llevar a cabo a través de la siguiente dirección: https://www.contratacion.euskadi.eus/inicio/. En este mismo lugar se podrá tener acceso a los pliegos y

agiriak eta dokumentazio osagarria. Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz lizitatzaileek eskatutako informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egun baino lehenago emango zaie, betiere, eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez 12 egun lehenago egindako eskariak badira. SPKLaren 136.2 eta 136.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan ematerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek eskaintzak egiteko beharrezkoa duten informazio guztia jaso dezaten ahalbidetzeko adina. Lizitazio honetan ez dira onartuko aipatutako bitarteko elektronikoetatik kanpo aurkeztutako eskaintzak. Eskaintzak elektronikoki egiteko beharrezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea. Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada ondo ikusi, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta une horretatik gehienez ere 24 orduko epea izango du akatsa zuen fitxategiko dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Berriz aurkeztutako dokumentu horrek ezingo du inolako aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako originalarekiko. Kontratazio Organoak ikusten badu dokumentuak aldaketarik izan duela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko. Proposamenak administrazio baldintza partikularren agiri honetan jasotakoari egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen diela Kontratazio Mahai eta Organoari EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan jasotako datuak kontsultatzeko. Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kalterik gabe. Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako		a la documentación complementaria. La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos 12 días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente. De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 136.2 y 3 de la LCSP, cuando la información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria no haya podido ser facilitada en los plazos indicados, así como cuando las ofertas solamente puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta *in situ* de la documentación adjunta al pliego, el plazo para la recepción de ofertas se prorrogará el tiempo que se considere conveniente para que los candidatos afectados puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para formular las ofertas. En el presente procedimiento de licitación no se admitirán ofertas que no sean presentadas a través de los medios electrónicos descritos. A estos efectos, es requisito necesario ser usuario registrado de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi. En el caso de que cualquiera de los documentos de una oferta no pueda visualizarse correctamente, se permitirá que, en un plazo máximo de 24 horas desde que se le notifique dicha circunstancia, el licitador presente en formato digital el documento incluido en el fichero erróneo. El documento presentado posteriormente no podrá sufrir ninguna modificación respecto al original incluido en la oferta. Si el Órgano de Contratación comprueba que el documento ha sufrido modificaciones, la oferta del licitador no será tenida en cuenta. Las proposiciones deberán ajustarse a lo previsto en este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, y su presentación supone, por parte del licitador, la aceptación incondicionada de dichas cláusulas o condiciones, sin salvedad ni reserva alguna, así como la autorización a la Mesa y al Órgano de Contratación para consultar los datos obrantes en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi. Cada licitador no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de la admisión de variantes. Tampoco podrá suscribir propuesta alguna en unión

batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu, eta ezta aldi baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide izan. Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du. Kontsultak aurkezteko eta argibideak eskatzeko modua: idazkaritza@elgeta.eus helbidera bidalitako idatzi baten bidez.		temporal de empresas si lo ha hecho individualmente, ni figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las proposiciones suscritas por el licitador. Forma de presentación de consultas y solicitar aclaraciones: mediante escrito enviado a la dirección: idazkaritza@elgeta.eus.
11.4. Proposamenak aurkeztearen eraginak. Proposamenak aurkeztuta, enpresa lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen ditu baldintza agiri honetako eta baldintza teknikoen agiriko baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreparorik gabe; eta era berean, baimena ematen die kontratazio mahaiari eta organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Orokorrean edo Europako Batasuneko estatu kide bateko eragile ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko. Baldintza agiriak ez onartzeak eskaintza baztertzea dakar ezinbestean. SPKLren 158.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitatzaileek ezingo dute beraien proposamena kendu bi hilabeteko epean. Epea hori 15 egun baliodunetan luzatuko da SPKLren 149. artikuluak ezohiko beherapendun eskaintzei buruz aipatzen dituen tramiteekin jarraitzea beharrezkoa denean. Proposamenen bat bidegabeki kentzeak dolo, iruzur edo arduragabekeria egon delako, administrazio publikoekin ezin kontratatzea ekarriko dio lizitatzaileari SPKLren 71.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta baita behin-behineko bermea konfiskatzea ere, horrelakorik eskatu izan balitz, SPKLren 106.1 artikuluaren arabera.		**11.4. Efectos de la presentación de proposiciones** La presentación de proposiciones presupone por parte de la empresa licitadora la aceptación incondicional de las cláusulas de este pliego y del pliego de prescripciones técnicas sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. El no sometimiento a los pliegos implica necesariamente el rechazo de la oferta. Las licitadoras no podrán retirar su proposición durante el plazo de dos meses conforme a lo previsto en el artículo 158.4 de la LCSP. Dicho plazo quedará ampliado en 15 días hábiles cuando sea necesario seguir los trámites a que se refiere el artículo 149 LCSP, relativo a las ofertas anormalmente bajas. La retirada indebida de una proposición, si mediase dolo, culpa o negligencia, será causa que impedirá a la licitadora contratar con las Administraciones Públicas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 71.2 de la LCSP, conllevando a su vez la incautación de la garantía provisional conforme al artículo 106.1 de la LCSP, si esta hubiera sido exigida.
11.5. Enpresa lizitatzaileentzako informazioa Kontratazio organoak baldintza agiriei eta gainerako dokumentu osagarriei buruz eskatutako informazio gehigarria emango die lizitazioan interesa duten guztiei, gehienez ere eskaintzak aurkezteko ezarritako		**11.5. Información a las empresas licitadoras** El órgano de contratación proporcionará a la parte interesada en el procedimiento de licitación, a más tardar 6 días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, aquella información

epea amaitu baino 6 egun lehenago; baldin eta, gutxienez, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 12 egun lehenago egin bada eskaria (2017ko SPKLren 138.3 artikulua). Eskaera posta elektroniko helbide honetan egin beharko da: idazkaritza@elgeta.eus. Baldintza agiriei edo gainerako dokumentazioari buruz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean argitaratuz gero, erantzunek izaera loteslea izango dute.		adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que estos soliciten, a condición de que la hubieran pedido al menos 12 días antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones (art. 138.3 LCSP 2017). Dicha solicitud se efectuará a la dirección de correo siguiente: idazkaritza@elgeta.eus. En los casos en que las aclaraciones solicitadas respecto a los pliegos o del resto de la documentación se hagan públicas en el perfil de la parte contratante, las respuestas tendrán carácter vinculante.
11.6. Konfidentzialtasuna. Kontratazio organoak ez du lizitatzaileek emandako informaziorik zabalduko, lizitatzaileek informazio hori isilpekotzat jo baldin badute eskaintza aurkezteko unean. Baldintza agiri honetako III. eranskinean jasotzen da aitorpen eredua. Konfidentzialtasun izaerak, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten die, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta edukia lehia faltsutzeko erabili daitekeen beste edozein informaziori, bai lizitazio honetan bai hurrengoetan. Kontratazio organoak eta bere menpeko zerbitzuek isilpekotasunez aritzeko duten betebeharra ezingo da zabaldu esleipendunaren eskaintzaren eduki osoari eta, hala balitz, ezta kontratazio organoak lizitazioan zehar zuzenean edo zeharka sortutako txosten eta dokumentuen eduki osoari ere. Isilpekotasunez aritzeko betebeharra bakarrik zabalpen mugatua duten dokumentuetara hedatu daiteke, eta inolaz ere ez jendearentzat eskuragarri dauden dokumentuetara. Isilpekotasun betebeharrak ezingo du galarazi egindako kontratuetan isilpekoak ez diren zatiak publikoki zabaltzea, hala nola, kitapena, obra egikaritzeko azken epeak, kontratatu eta azpikontratatutako enpresak eta, edozein modutan ere, eskaintzaren funtsezko zatiak eta kontratuari ondoren egindako aldaketak, betiere, Datu		**11.6. Confidencialidad** El órgano de contratación no divulgará la información facilitada por las empresas licitadoras que éstas hayan designado como confidencial en el momento de presentar su oferta. En el Anexo III de este pliego se incorpora el modelo de declaración. El carácter de confidencialidad afecta, entre otros, a los secretos técnicos o comerciales, a los aspectos confidenciales de las ofertas y a cualesquiera otras informaciones cuyo contenido pueda ser utilizado para falsear la competencia, ya sea en ese procedimiento de licitación o en otros posteriores. El deber de confidencialidad del órgano de contratación, así como de sus servicios dependientes no podrá extenderse a todo el contenido de la oferta de la parte adjudicataria ni a todo el contenido de los informes y documentación que, en su caso, genere directa o indirectamente el órgano de contratación en el curso del procedimiento de licitación. Únicamente podrá extenderse a documentos que tengan una difusión restringida, y en ningún caso a documentos que sean públicamente accesibles. El deber de confidencialidad tampoco podrá impedir la divulgación pública de partes no confidenciales de los contratos celebrados, tales como, en su caso, la liquidación, los plazos finales de ejecución de la obra, las empresas con las que se ha contratado y subcontratado, y, en todo caso, las partes esenciales de la oferta y las modificaciones posteriores del contrato, respetando en todo caso lo dispuesto en la

Pertsonalak Babesteko legedian ezarritakoa errespetatuz.		legislación de Protección de Datos de Carácter Personal.
11.7. Proposamenak aurkezteko era. Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu behako dituzte, lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta eta baldintza honetan horietako bakoitzerako zehaztuko den edukiarekin.		**11.7. Forma de presentación de las proposiciones** Los licitadores deberán presentar tres archivos electrónicos, firmados por el licitador o persona que lo represente, y con el contenido que, para cada uno de ellos, se especifica en esta cláusula.
"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA. Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu: • Gaitutako helbide elektroniko bat. Gaitutako helbide elektroniko bat izendatu beharko da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente honetan sortutako jakinarazpenak egiteko. • Lizitatzailearen erantzukizunpeko deklarazioa. Deklarazio horretan lizitatzaileak adierazi beharko du Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita kontratua eskuratzeko baldintza agiri honetan jasotako baldintzak ere, bereziki, bertako 16. baldintzakoak. Deklarazioa Agiri Europar Bakarraren formularioaren arabera egin beharko da. Edozein kasutan ere, prozedura ondo bideratuko dela bermatzeko, esleipen-proposamena egin baino lehen, kontratazio organoak edo mahaiak edozein unetan eska dezake lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko lukeen dokumentazioa. • Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) aurkezten diren operadore ekonomikoen kasuan, elkartekide bakoitzak bere erantzukizunpeko deklarazioa egin beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero, ABEEa formalki eratzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera, bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean. • Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen		**ARCHIVO ELECTRÓNICO «A» CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR** Este archivo contendrá los siguientes documentos: • Dirección de correo electrónico habilitada. Designación de una dirección de correo electrónico habilitada, de conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP, en la que se realizarán las notificaciones derivadas de este expediente de contratación. • Declaración responsable del licitador. En esta declaración el licitador indicará que cumple las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración, así como los requisitos para acceder al contrato establecidos en este pliego y, en particular, en la cláusula 16 del mismo. La declaración se ajustará al formulario del Documento Europeo Único de Contratación (DEUC). No obstante, el Órgano o la Mesa de Contratación, en orden a garantizar el buen fin del procedimiento, podrá recabar, en cualquier momento anterior a la adjudicación, que los licitadores aporten documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones referidas en este pliego para ser adjudicatario del contrato. • En el caso de operadores económicos que concurran en unión temporal de empresas (UTE), cada uno de los integrantes deberá aportar su propia Declaración responsable. Igualmente, deberán aportar el compromiso de constituir formalmente la UTE caso de resultar adjudicatarios del contrato, y deberán especificar los nombres, circunstancias y participación de cada uno de ellos en dicha UTE. • En los casos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 75 de la LCSP, el licitador se base en la solvencia y medios de otras

bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena. Proposamenak aurkezteko epea amaitzean egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eta baldintza agiri honek eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.		entidades, cada una de ellas también deberá presentar una Declaración responsable. El momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos de personalidad, capacidad y solvencia exigidos en la Ley y en este pliego será el de finalización del plazo de presentación de las proposiciones.
"B" ARTXIBO ELEKTRONIKOA.- BALIO-JUDIZIOAREN ARABERAKO BALORAZIO IRIZPIDEAK. Artxibo honek balio-judizioaren menpeko balorazio irizpideei buruz baldintza-agiri honetako 16. baldintzan aipatutako dokumentuak jasoko ditu. "B" artxiboan sartu beharreko memoriak, gehienez ere, DIN A-4ko 30 orri izan beharko ditu, alde batetik idatziak (aurkibidea eta eranskinak barne, horrelakorik balego). Aurkeztutako memoriak aipatutako orri kopuru hori gainditzen badu, balorazioan ez da kontuan izango ezarritako orri kopurutik gorakoa.		**ARCHIVO ELÉCTRONICO «B» CRITERIOS DE VALORACIÓN MEDIANTE JUICIO DE VALOR** Este archivo contendrá los documentos referidos a los criterios cuya valoración depende de un juicio de valor, señalados en la cláusula 16 de este pliego. La documentación incluida en el archivo "B" deberá de tener como máximo 30 páginas, en una sola cara, DIN A-4 (índice y anexos incluidos si los hubiera). En el caso de que la memoria presentada supere el número de páginas señalado, no se tendrá en cuenta para la valoración todo lo que exceda de la extensión fijada.
"C" ARTXIBO ELEKTRONIKOA.- AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK. Proposamen dokumentua II. eranskinean jasotzen den ereduan: • Proposamen ekonomikoa: Eskaintza horretan prestazio ekonomikoaren kostua banakatu beharko da eranskinean adierazitako moduan. • Enpresak hizkuntza-normalizazioaren arloan aplikatuko dituen neurriak zehaztea, eranskinean adierazitako moduan.		**ARCHIVO ELÉCTRONICO «C» CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA** Documento de propuesta recogido en el anexo II: • Proposición económica: En dicha oferta deberá de detallarse el desglose del coste de la prestación económica según se indica en el anexo. • Concretar las medidas en materia de normalización lingüística que va aplicar la empresa, según se indica en el anexo.
12. BALDINTZA. Kontratazio mahaia.		**CLÁUSULA 12ª. Mesa de contratación.**
Eskaintzak baloratzeko eta dokumentazio administratiboa sailkatzeko organo eskuduna Kontratazio Mahaia izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan jasotakoaren arabera jardungo du. Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:		La Mesa de Contratación será el órgano competente para efectuar la valoración de las ofertas y calificar la documentación administrativa, y actuará conforme a lo previsto en el art. 326 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. La Mesa de Contratación quedará constituida de la forma siguiente:

Mahaiburua: Bideberri Mankomunitateko lehendakaria edo berak eskuordetutako pertsona. Mahaikideak: Bideberri Mankomunitateko gizarte langileak. Idazkaria: Bideberri Mankomunitateko idazkari-kontuhartzailea.		Presidencia: presidenta de la Mancomunidad Bideberri o concejal/a en quien delegue Vocales: trabajadoras sociales de la Mancomunidad Bideberri Secretario:Secretario-Interventor de la Mancomunidad Bideberri.
13. BALDINTZA. Dokumentazioa sailkatzea, proposamenak irekitzea eta dokumentazioa eskatzea.		**CLÁUSULA 13ª. Calificación de la documentación, apertura de proposiciones y requerimiento de documentación.**
13.1. "A" artxiboa irekitzea eta dokumentu administratiboak kalifikatzea. 1.- Proposamenak aurkezteko epea amaituta, Kontratazio Mahaiak denboraz eta formaz zuzen aurkeztutako "A" artxiboak ireki eta lizitatzaileek aurkeztutako dokumentu administratiboak kalifikatuko ditu. Mahaiak akats edo omisio konpongarriak antzematen baditu aurkeztutako dokumentazioan, lizitatzaileei jakinaraziko die, eta gehienez ere 3 egun naturaleko epea eman horiek zuzentzeko. Era berean, aurkeztutakoaren dokumentazio osagarria edo argigarria aurkezteko eskatu ahal izango die mahaiak lizitatzaileei, eta horretarako 5 egun naturaleko epea eman. 2.- Jakinarazpenak bitarteko elektroniko bidez egingo zaizkie interesdunei. 3.- Azkenik, kontratazio mahaiak lizitaziorako onartutako eta baztertutako lizitatzaileak erabakiko ditu eta bazterketaren arrazoiak adierazi.		**13.1.- Apertura del archivo "A" y calificación de la documentación administrativa.** 1.- Concluido el plazo de presentación de proposiciones, la mesa de contratación procederá a la apertura y calificación de la documentación administrativa presentada por las licitadoras, en tiempo y forma, en el denominado archivo "A". Si la mesa observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada, lo comunicará a las partes interesadas, concediéndoles un plazo no superior a 3 días naturales para su corrección o subsanación. De igual forma, la mesa podrá recabar de las licitadoras la presentación de documentación complementaria o aclaratoria de la ya aportada, concediendo un plazo de 5 días naturales para su presentación. 2.- La comunicación a las interesadas se efectuará mediante notificación por medios electrónicos. 3.- Finalmente, la mesa de contratación procederá a determinar las licitadoras que son admitidas a la licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo.
13.2.- "B" artxiboak ireki eta aztertzea. 1.-"B" artxiboak ekitaldi publikoan irekiko dira beraien edukia 16. baldintzan adierazitako irizpideen arabera ebaluatzeko. 2.- Artxiboak irekitzeko ekitaldiaren hasieran berariaz adieraziko dira proposamenei mahaiak emandako kalifikazioak, lizitaziora onartutakoak eta		**13.2.- Apertura y examen del archivo "B"** 1.-Se procederá a la apertura en acto público del archivo "B" al objeto de evaluar su contenido con arreglo a los criterios expresados en la cláusula 16. 2.- Dicho acto se iniciará con un pronunciamiento expreso sobre la calificación de las proposiciones efectuada por la mesa que identifique las admitidas a

baztertutakoak identifikatuz, eta azken kasu horretan, bazterketaren arrazoiak adieraziz. 3.- Lizitazio prozeduratik kanpo geldituko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak, eta baita "B" artxiboan formula bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa ("C" artxiboa) sartzen dutenak ere.		licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo. 3.- Se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y las que incorporen en el archivo "B" documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (archivo "C").
13.3.- "C" artxiboak ireki eta aztertzea. 1.- "C" artxiboak ekitaldi publikoan irekiko dira. 2.- Ekitaldi horretan "B" artxiboko dokumentazioaren balorazioaren emaitza ezagutaraziko da. 3.- Jarraian, onartutako lizitatzaileen "C" artxiboak irekiko ditu kontratazio mahaiak, eta eskaintza ekonomikoak irakurriko ditu. 4.- C artxibo horietako dokumentazioa 16. baldintzan adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko da. 5.- Dena den, irizpide horiek "B" artxiboko dokumentazioa baloratu ondoren ebaluatuko dira beti.		**13.3.- Apertura y examen del archivo "C"** 1.- La apertura del archivo "C" se hará en acto público. 2.- Se dará a conocer en este acto el resultado de la valoración de la documentación contenida en el archivo "B". 3.- Seguidamente, la mesa de contratación procederá a la apertura del archivo "C" de las licitadoras admitidas, dando lectura a las ofertas económicas. 4.- La documentación contenida en este archivo será evaluada conforme a los criterios expresados en la cláusula 16. 5.- En todo caso, la evaluación de estos criterios será siempre posterior a la valoración de la documentación contenida en el archivo "B".
14. BALDINTZA. Kontratazio mahaiaren aktak.		**CLÁUSULA 14ª. Actas de la mesa de contratación**.
Aurreko puntuen arabera egindako guztia jasoko da dagozkien aktetan, eta bertan jasoko dira ere prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak.		De todo lo actuado conforme a los apartados anteriores, se dejará constancia en las actas correspondientes, en las que se reflejarán el resultado del procedimiento y sus incidencias.
15. BALDINTZA. Kontratazio mahaiaren ekitaldien emaitzei publizitatea ematea eta dagozkien lizitatzaileei jakinaraztea.		**CLÁUSULA 15ª.- Publicidad del resultado de los actos de la mesa de contratación y notificación a las licitadoras afectadas.**
15.1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena eta bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediaren arabera argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak bidaliko zaizkie dagozkien lizitatzaileei.		15.1.- La calificación, admisión o exclusión de las ofertas se publicarán en el perfil de contratante. Se excluirá aquella información que no sea susceptible de publicación de conformidad con la legislación vigente. Todo ello, sin perjuicio de la necesaria comunicación o notificación, según proceda, a las licitadoras afectadas.

15.2.- Lizitatzaile bat kanporatzeko egintza ekitaldi publikoan bertan jakinarazi ahalko zaio lizitatzaile horri, egintza horretan dagokion enpresa ordezkatzen duena bertan baldin badago edo, hura ez balego, 2015eko urriaren 1eko Herri Administrazioen Administrazioaren Jardunbide Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako prozeduren arabera. 15.3.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igarotakoan horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena Kontratazio Publikoa Euskadin plataformaren egoitza elektronikoan eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.		15.2.- El acto de exclusión de una licitadora podrá ser notificado a esta en el mismo acto público, si fuera posible por encontrarse quien representa a la empresa presente en dicho acto o, en su defecto, con arreglo a los restantes procedimientos establecidos en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. 15.3.- La notificación por medios electrónicos se entenderá rechazada cuando hayan transcurrido 10 días naturales desde la puesta a disposición de la notificación sin que se acceda a su contenido; y se entenderá cumplida la obligación de notificación en plazo con la puesta a disposición de la notificación en la sede electrónica de la Plataforma Contratación Pública en Euskadi.
16. BALDINTZA. Esleipen irizpideak.		**CLÁUSULA 16ª. Criterios de adjudicación.**
16.1- Kontratua esleitzeko nahiz haren haztapena kontuan hartzeko irizpideak, oinarrizko eskaintzan nahiz, hala badagokio, aldaeretan edo hobekuntzetan aplikatzekoak, 3. puntuan adierazitakoak izango dira. 16.2.- Enpresa lizitatzaileren batek ez badu aurkezten formula aritmetikoak aplikatu gabe baloratzen diren esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inolaz ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.		16.1- Los criterios a tener en cuenta, así como su ponderación para la adjudicación del contrato, aplicables tanto a la oferta base como a las variantes o mejoras en su caso, serán los establecidos en el punto 3. 16.2.- Si alguna empresa licitadora no aportara la documentación relativa a los criterios de adjudicación que no se valorasen por aplicación de fórmulas aritméticas la proposición de dicha empresa no será valorada respecto del criterio de que se trate. En ningún caso serán excluidas del procedimiento de adjudicación las proposiciones por este motivo.
16.3.- IRIZPIDEAK:		16.3.- CRITERIOS:
AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 55 puntu (C artxiboan sartu beharrekoa).		**CRITERIOS CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMÁTICA. 55 puntos (a incluir en archivo C).**
1- ESKAINTZA EKONOMIKOA: 50 puntu (C artxiboan sartu beharrekoa).		**1.- OFERTA ECONOMICA**: 50 puntos. (a incluir en archivo C).
<u>1.1.- Laneguneko orduko prezioaren eskaintza ekonomikoa: 50 puntura arte.</u> 50 punturekin baloratuko da lehen hiru urteetako (a, b eta c) orduko prezioaren bataz bestekoaren preziorik		1.1- <u>Oferta económica para el precio/hora día laborable: hasta 50 puntos.</u> Se valorará con 50 puntos la propuesta que ofrezca el precio más bajo de la media del precio hora de los tres

baxuena eskaintzen duen proposamena, eta formula horretatik gainerako proposamenen puntuazioa aterako da, prezio baxuena duen eskaintzaren eta baloratutako lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatidura irizpideari aplikagarri zaion puntu kopuru osoarekin biderkatuz. Hau da: Lp= Pm/Le x 50 Honako hauek izanik: Lp: Lizitatzailearen puntuazioa Pm: Prezio merkeena Le: Lizitatzailearen eskaintza		primeros años (a, b y c), resultando de esta fórmula la puntuación del resto de proposiciones, multiplicando el cociente entre la oferta con precio más bajo y la oferta de la licitadora por el número total de puntos aplicables al criterio. Es decir: Pl= Ob/Ol x 50 Donde: Pl: Puntuación licitadora Ob: Oferta más baja Ol: Oferta licitadora
Eskaintza ezohikotzat edo neurrigabetzat joko da, eta lizitaziotik kanpo utzi ahal izango da, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino ehuneko 10 baxuagoa bada. Horrela jotzeko, aurrez informazioa eskatu behar zaie kasu horretan ustez dauden lizitatzaile guztiei, eta dagokion zerbitzuaren laguntza teknikoa ere eskatu beharko da. Edozelan ere, oso baxuak izateagatik ezohikoak direla egiaztatzen diren eskaintzak baztertuko dira azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dutelako betetzen estatuan edo nazioartean aplikagarri diren ingurumen arloko, gizarte arloko eta lan arloko betebeharrak, arloetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne, 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz. Edozein modutan, ulertu beharko da emandako justifikazioak ez duela behar beste azaldu lizitatzaileek proposatutako prezioen edo kosteen maila baxua, justifikazioa osatugabea denean edo ikuspuntu teknikotik, juridikotik edo ekonomikotik hipotesi edo jarduera ezegokietan oinarrituta dagoenean.		Se considerarán, en principio, como anormal o desproporcionadas, pudiendo ser excluidas de la licitación, las ofertas inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. Su declaración requerirá la previa solicitud de información a todas las licitadoras supuestamente comprendidas en ella, así como el asesoramiento técnico del servicio correspondiente En todo caso, serán rechazadas las ofertas si se comprueban que son anormalmente bajas porque vulneran la normativa sobre subcontratación o no cumplen las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral, nacional o internacional, incluyendo el incumplimiento de los convenios colectivos sectoriales vigentes, en aplicación de lo establecido en el artículo 201. Se entenderá en todo caso que la justificación no explica satisfactoriamente el bajo nivel de los precios o costes propuestos por la licitadora cuando esta sea incompleta o se fundamente en hipótesis o prácticas inadecuadas desde el punto de vista técnico, jurídico o económico.
2.- HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ARLOKO NEURRIAK: 5 puntu (C artxiboan sartu beharrekoa).		**2.- MEDIDAS EN MATERIA DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA:** 5 puntos (a incluir en sobre C).
Arreta jaso beharko duten erabiltzaileen hizkuntza-ezaugarriak kontuan hartuta, gehienez 5 punturekin baloratuko da zerbitzuari atxikitako langileek euskara ikas dezaten laguntzeko neurriak aplikatzea: 3.1. Zerbitzuari atxikitako langileei ordutegi-malgutasuna ematea, euskara-ikastaroetara joan ahal izan daitezen: 1 puntu. 3.2. Zerbitzuari atxikitako langileen euskara-ikastaroetako matrikulazio kostuak ordaintzea: 1,5 puntu.		Teniendo en cuenta las características lingüísticas del colectivo de personas usuarias que deberán ser atendidas, se valorará con hasta 5 puntos la aplicación de medidas para favorecer el aprendizaje del euskera por parte del personal adscrito al servicio: 3.1. Dotar al personal adscrito al servicio de flexibilidad horaria para que puedan asistir a cursos de euskera: 1 punto. 3.2. Sufragar los costes de matriculación en cursos de euskera del personal adscrito al servicio: 1,5 puntos.

3.3. Euskaltegi batean euskara ikasten emandako orduak lanordutzat hartzea: 2,50 puntu.		3.3.: Contabilizar como horas de trabajo las horas dedicadas por el personal al aprendizaje del euskera en un Euskaltegi: 2,50 puntos.
“BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO IRIZPIDEAK: 45 puntu (B artxiboan sartu beharrekoa).		**CRITERIOS EVALUABLES MEDIANTE JUICIOS DE VALOR: 45 puntos (a incluir en el archivo B).**
1.- TXOSTEN TEKNIKOA: 45 puntu (B artxiboan sartu beharrekoa). Lizitatzaileek aurkeztutako proiektuetako ondorengo alderdiak baloratuko dira:		**1.- MEMORIA TÉCNICA: 45 puntos (a incluir en archivo B).** Se valorarán los siguientes aspectos de los proyectos que presenten las licitadoras:
1.1. Lan programa: 35 puntu Atal hau ondorengo zatitan banatzen da:		**1.1. Programa de trabajo: 35 puntos.** Este criterio se desglosa en los siguientes apartados:
1.1.1. Lanaren antolaketa, zerbitzuaren kontrola eta ebaluazioa: 15 puntu. Oinarrizkotzat jotzen da enpresa esleipendunak enpresak aurrez egindako proiektu baten arabera ematea zerbitzua, betiere, Gizarte Zerbitzuek kontratua betetze aldian hobekuntzak edo aldaketak erabakitzearen kalterik gabe. Baloratuko dira zerbitzuaren jarraipenerako eta kalitatea hobetzeko sistemak: etxera bisitak, ordutegiaren jarraipena (fitxatze sistema…), adierazleak… Baita ere eskaera jasotzen denetik martxan jarri arteko prozesua eta denbora, gorabeherak eta aldaketak kudeatzea…		1.1.1. Organización del trabajo, control del servicio y evaluación: 15 puntos. Se considera fundamental que la empresa adjudicataria ejecute el servicio de acuerdo a un Proyecto previamente diseñado por la empresa, sin perjuicio que el departamento de Servicios Sociales pueda acordar mejoras o modificaciones a lo largo de la ejecución del contrato. Se valorarán los sistemas de seguimiento y mejora de calidad del servicio: visitas domiciliarias, seguimiento del cumplimiento de horario (sistema de fichaje…), indicadores… También el proceso y tiempo desde que se recibe la solicitud hasta ponerlo en marcha, gestión de incidencias y cambios…
1.1.2. Enpresa esleipendunaren eta mankomunitatearen arteko koordinazioa: 8 puntu. Zerbitzua azpikontratatutako enpresa baten bidez emateak dakar, besteak beste, ez dela lan harremanik egongo enpresako langileen eta udalaren artean. Hala ere, zerbitzua ondo kudeatzeko beharrezko da komunikazio, koordinazio eta ikuskapen bide iraunkorrak eta eraginkorrak egotea Udalaren eta enpresaren artean. Koordinatzaileak Bideberriko zerbitzuari zuzenean eskainiko dion ordu kopurua baloratuko da.		1.1.2. Coordinación entre Empresa adjudicataria-Mancomunidad: 8 puntos. La prestación del servicio a través de una empresa subcontratada supone, entre otros aspectos, que no existirá relación laboral entre el personal auxiliar y el Ayuntamiento. Sin embargo, resulta imprescindible en aras de una buena gestión del servicio, que se establezcan cauces de comunicación, coordinación y supervisión permanentes, eficaces y eficientes entre el Ayuntamiento y la empresa. Se valorarán las horas que ofrezca la coordinadora directamente al servicio de Bideberri.
1.1.3. Baliabide teknikoak: 12 puntu. Baldintza teknikoen agiriak dio enpresa kontratistak bere lana egoki egiteko beharrezko elementu materialak emango dizkiela etxez etxeko langileei. Beraz, lizitazioan parte hartzen duten enpresek dituzten, eta zerbitzua kalitate hobeaz ematera eragingo duten, baliabide tekniko materialak		1.1.3. Medios técnicos: 12 puntos El Pliego de condiciones técnicas establece que la empresa contratista dotará al personal asistente de los elementos materiales precisos para el correcto desempeño de su trabajo. Por tanto, se valorarán únicamente los medios técnicos materiales que las empresas concursantes posean y repercutan en la mejor calidad

baloratuko dira bakarrik: langileentzako lokala, informatika baliabideak; eta batez ere gizarte zerbitzuek uneoro informazio eguneratua izateko neurriak eta programak, intzidentzien informazio zuzena eta eskainitako orduen zehaztasuna modu automatizatuan eskaintzea…		para la prestación del servicio: local para el personal, medios informáticos: y en especial programas y medios para que los servicios sociales tengan información actualizada en cada momento, ofrecer información exhaustiva de las incidencias y horas ofrecidas de manera automatizada...
1.2. Enpresa antolaketa: 10 puntu		**1.2. Organización empresarial: 10 puntos**
1.2.1. Laguntza zerbitzuko langileen organigrama eta lan-poltsa: 5 puntu. Enpresa esleipenduneko langileek enpresa barruko organigrama baten arabera lan egitea baloratuko da. Organigrama eraginkorra izan beharko da zerbitzuaren berezko funtzioak betetzeko eta aginte maila bakoitzaren ardurak jaso beharko ditu. Enpresa kontratistaren betebeharra bada ere uneoro langileak izatea mankomunitatearen beharrak asetzeko, baloratu egingo da Proiektuan ordezkapenak eta behar berriei erantzuteko aurreikusitako sistema jasotzea (lan-poltsa, bestelako baliabideak…), horrela behar beste bermatuta egongo litzatekeelako betebehar hori.		1.2.1.: Organigrama del personal asistente y bolsa de trabajo: 5 puntos. Se valorará que el personal de la empresa adjudicataria trabaje según un organigrama interno que resulte eficaz y eficiente para el cumplimiento de las funciones propias del servicio, que incluya las responsabilidades de cada nivel jerárquico. Si bien será obligación de la empresa contratista disponer en todo momento del personal para cubrir las necesidades de la mancomunidad, se valorará que en el Proyecto se incluya el sistema previsto para sustituciones y nuevas necesidades (bolsa de trabajo, otros recursos…) con lo que queda suficientemente garantizado el cumplimiento de la obligación.
1.2.2. Etengabeko prestakuntza programa: 5 puntu. Arreta jasotzen duten herritarren beharren aldaketei eta zuzeneko langileenei erantzungo dien prestakuntza programa baloratuko da, urteko ordu kopurua, programaren edukia, langileei emandako materiala eta abar.		1.2.2. Programa de formación continua: 5 puntos Se valorará el programa de formación que responda a las necesidades cambiantes de la población atendida y del personal directo, el número de horas anuales, así como el contenido mismo del programa, material proporcionado a los/las profesionales, etc.
17. BALDINTZA. Eskaintzen balorazioa.		**CLÁUSULA 17ª. Valoración de las ofertas.**
1.- Bere zereginak betetze aldera, mahaiak egokitzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eska ditzake, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. 2.- Eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira. 3.- Balorazio orokorrean onartuak izateko, formulen bidez zenbatu ezin diren irizpideetan lizitatzaileek gutxieneko puntuazioa lortzea eskatuko da; hala, Kontratazio Mahaiak ez ditu kontuan hartuko honako puntuazio hau lortzen ez duten eskaintzak: 22,5 puntu.		1.- Para el ejercicio de sus funciones, la mesa podrá solicitar cuantos informes técnicos considere precisos, de conformidad con lo previsto en el artículo 146.2.b) de la LCSP. 2.- Las propuestas que no cumplan las prescripciones técnicas exigidas serán excluidas. 3.- Para ser admitidos en la valoración global, se exigirá que en los criterios no cuantificables mediante fórmulas, los licitadores alcancen una puntuación mínima, de forma que no serán tenidas en cuenta por la Mesa de Contratación las ofertas cuya puntuación no alcance lo siguiente: 22,5 puntos.

18. BALDINTZA. Eskaintzak argitzea.		**CLÁUSULA 18ª. Aclaración de ofertas.**
Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak aurkeztutako eskaintzari buruzko azalpenak emateko edo, baleude, idazketan hautemandako akats material nabarmenak zuzentzeko eska diezaioke lizitatzaileari, betiere, tratu-berdintasunaren printzipioa errespetatzen bada eta eskaintzako xehetasunak aldatzeko aukerarik izan gabe. Horren guztiaren berri espedientean jaso beharko da dokumentu bidez (SPKLren 95. artikulua).		El órgano de contratación o la mesa de contratación podrán solicitar a la licitadora aclaración sobre la oferta presentada o si hubiere de corregir manifiestos errores materiales en la redacción de la misma, siempre que se respete el principio de igualdad de trato y sin que puedan, en ningún caso, modificarse los términos de la oferta. De todo lo actuado deberá dejarse constancia documental en el expediente (art.95 LCSP).
19. BALDINTZA. Ezohiko beherapendun eskaintzak		**CLÁUSULA 19ª. Ofertas con valores anormalmente bajos**
1.- Neurriz kanpoko eskaintzatzat edo ezohiko beherapenduntzat joko dira ondorengo kasuetako proposamenak: - Lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioko aurrekontua baino 25 unitateko portzentajean txikiagoa baldin bada. - Bi lizitatzaile daudenean, beherapen portzentajea batetik bestera 20 unitate baino handiagoa baldin bada. - Gainerakoetan, onartutako eskaintzen batez bestekoaren % 10 baino beherapen handiagoa dutenak. Egoera hori ez da izango baztertzeko arrazoia, betiere lizitatzaileak nahikoa justifikatzen badu bere proposamena bideragarria dela (egoki iritzitako kalkuluak eta argudioak aurkeztuz). Gainerako eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira. Proposamenaren bideragarritasuna ez baldin bada egiaztatzen, ez da aintzat hartuko eta formula ez da aldatuko. 2.- Ustez ezohiko beherapena duen proposamen bat identifikatutakoan, kontratazio mahaiak edo, horrelakorik ezean, kontratazio organoak, lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatuko dio/e eskaintzak ezohiko beherapena izatea eragin duten proposameneko parametroak justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLaren 149. artikuluko 4-6 bitarteko		1.- Se considerarán ofertas desproporcionadas o con valores anormales las propuestas que se encuentren en los siguientes supuestos: - Cuando, concurriendo un solo licitador, sea inferior al presupuesto de licitación en más de 25 unidades porcentuales. - Cuando concurran dos licitadoras, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta. - En el resto de los casos las que supongan una rebaja superior en un 10% a la media de las ofertas admitidas. Esta circunstancia no será motivo de exclusión siempre que la licitadora justifique suficientemente que su proposición es viable (mediante la aportación de los cálculos y argumentos que se estimen oportunos). El resto de ofertas serán puntuadas proporcionalmente. En el caso de no quedar acreditada la viabilidad de la proposición, ésta no será considerada y la formula no variará. 2.- Cuando se identifique una proposición que pueda estar incursa en presunción de anormalidad, la mesa de contratación o en su defecto el órgano de contratación, deberá requerir a la licitadora o licitadoras para que justifiquen y desglosen, razonada y detalladamente, los parámetros de su proposición que han definido la anormalidad de la oferta, tramitando el procedimiento previsto en los apartados

ataletan aurreikusitako prozedura izapidetuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.		4 a 6 del artículo 149 de la LCSP y, en vista de su resultado, proponiendo al órgano de contratación su aceptación o rechazo.
20. BALDINTZA. Prozeduran ordezkatzea.		**CLÁUSULA 20º. Sucesión en el procedimiento.**
Prozedura bat izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu aurretik, enpresako ondare bat edo jardueraren adar bat fusionatu, banatu edo eskualdatzeko eragiketaren bat gertatuko balitz, enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren posizioa hartuko du prozeduran, haren ordez, sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortuak, banaketaren onuradunak edo enpresaren ondarea edo dagokion jarduera-adarra baitaratzen duenak, betiere, gaitasunarekin eta kontratatzeko debekurik ez izatearekin lotutako baldintzak betetzen baditu eta egiaztatzen baditu bere kaudimena eta esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko baldintza administratibo berezien agirian eskatzen diren baldintzetan sailkatuta dagoela.		Si durante la tramitación de un procedimiento y antes de la formalización del contrato se produjese una operación de fusión, escisión, transmisión del patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, le sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia y clasificación en las condiciones exigidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.
21. BALDINTZA. Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta Administrazioak esleipen prozeduran atzera egitea.		**CLÁUSULA 21ª. Decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y desistimiento del procedimiento de adjudicación por la Administración.**
2017ko SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko edo prozeduran atzera egiteko erabakia hartu dezake kontratazio organoak kontratua formalizatu aurretik. Ez esleitzeko edo kontratua ez egiteko erabakia espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik hartu ahal izango da bakarrik. Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatzeko edo esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat egon behar du, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia. Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko edo SPKLren 152. artikuluko baldintzetan esleipen prozeduran atzera egiteko erabakia lizitatzaileei jakinarazi		De conformidad con lo dispuesto en el artículo 152 LCSP 2017, la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato o el desistimiento del procedimiento podrán acordarse por cada órgano de contratación antes de la formalización. Sólo podrá adoptarse la decisión de no adjudicar o celebrar el contrato por razones de interés público debidamente justificadas en el expediente. El desistimiento del procedimiento deberá estar fundado en una infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las reguladoras del procedimiento de adjudicación, debiendo justificarse en el expediente la concurrencia de la causa La decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y el desistimiento del procedimiento de adjudicación en los términos del artículo 152 de la LCSP se notificará a las

beharko zaie eta baita Europako Batzordeari ere kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri denean.		licitadoras e informará también a la Comisión Europea cuando el contrato haya sido anunciado en el Diario Oficial de la Unión Europea.
22. BALDINTZA. Eskaintzen sailkapena eta dokumentazio eskaera.		**CLÁUSULA 22ª. Clasificación de ofertas y requerimiento de documentación.**
22.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleipen proposamena. Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio mahaiak, aktarekin batera, balorazioa eta esleipen proposamena bidaliko dio kontratazio organoari. Esleipen proposamen horretan eskaintzak onenetik txarrenera zerrendatuta agertu beharko dira, 16. baldintzan adierazitako irizpideen arabera bakoitzak lortutako puntuekin, eta kalitate-prezio aldetik onena identifikatuta. Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta kontratua formalizatu arte ez du inolako eskubiderik izango Administrazioaren aurrean.		**22.1.- Clasificación de las ofertas y propuesta de adjudicación** Una vez valoradas las ofertas, la mesa de contratación remitirá al órgano de contratación de la entidad contratante, junto con el acta, la correspondiente valoración y la propuesta de adjudicación en la que figurarán ordenadas las ofertas de forma decreciente, incluyendo la puntuación otorgada a cada una de ellas por aplicación de los criterios indicados en la cláusula 16ª, e identificando la que presente mejor relación calidad-precio. La propuesta de adjudicación del contrato no crea derecho alguno en favor de la licitadora propuesta, que no los adquirirá, frente a la Administración, mientras no se haya formalizado el contrato.
22.2.- Kalitate-prezio aldetik eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko beharkizunen egiaztagiriak aurkeztea. **22.2.1.-** Mahaiak kontratazio organoari proposamena eginda, dagokien zerbitzuek errekerimendua egingo diote eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari kontratua esleitzeko beharrezkotzat jotzen diren ondorengo dokumentuak aurkez ditzan errekerimendua jasotzen duen biharamunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean. Dokumentazio hori ondorengoa da:		**22.2.- Presentación de la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos por la licitadora que haya presentado la oferta con mejor relación calidad-precio** **22.2.1.-** Efectuada la propuesta de la mesa al órgano de contratación, los servicios correspondientes de cada entidad contratante requerirán a la licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el siguiente a aquel en el que haya recibido el requerimiento, presente la documentación que se relaciona como necesaria para adjudicar el contrato. Esta documentación será la siguiente:
1.- Jarduteko gaitasuna eta jarduera esparrua egiaztatzeko dokumentuak. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturiko -inskribatzea derrigorrezkoa denean, aplikatu dakiokeen		**1.- Documentos que acrediten la capacidad de obrar y su ámbito de actividad**. Si la empresa es una persona jurídica, la capacidad de obrar se acreditará mediante la presentación de escritura de constitución o modificación, debidamente inscrita en el Registro Mercantil cuando este requisito

merkataritza legeriaren arabera- eraketa edo, hala dagokionean, aldaketa eskritura aurkeztu beharko da. Eskakizun hori ezin bada eskatu, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Pertsona juridikoei kontratuak esleituko zaizkie, bakar bakarrik, kontratuen prestazioak sartuta badaude aipatutako pertsona juridikoek, beren estatutu edo sorrera arauen arabera, berezko dituzten helburu, xede edo jarduera eremuen barruan. Hori egiaztaturik geratu beharko da helarazitako dokumentazioan. Enpresa pertsona bakarrarena denean, nortasun agiria edo haren balioa duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.		sea exigible según la legislación mercantil aplicable. Si dicho requisito no fuera exigible, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acta fundacional, en el que consten las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto u ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios, cuestión que deberá quedar acreditada en la documentación aportada. Si la empresa fuera individual, mediante la presentación del documento nacional de identidad o documento que haga sus veces.
2.- Ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak, hala badagokio. Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera. Ordezkari horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion erakunde administratiboak konpultsatua. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da. Alabaina, egintza jakin baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatzerik, Merkataritza Erregistroaren erregelamendua onartzen duen uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuko 94.1.5 artikuluaren arabera.		**2.- Documentos que acrediten, en su caso, la representación.** Las personas que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra, presentarán copia del DNI, así como poder bastante al efecto. En caso de que la persona representante no posea DNI, deberá presentar fotocopia, legitimada notarialmente o compulsada por el órgano administrativo competente, del documento que lo sustituya reglamentariamente. Si la empresa fuere persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil. No obstante, si se trata de un poder para un acto concreto no será necesaria la inscripción en el Registro Mercantil, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 94.1.5 del Reglamento del Registro Mercantil.
3.- Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta profesionala edo teknikoa. Eskatutako sailkapena edo, hala badagokio, bere kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzea SPKLaren 87. eta 89. artikuluetan aurreikusitako eta baldintza agiri		**3.- Solvencia económica- financiera y técnica o profesional.** Acreditación de su solvencia económica, financiera y técnica o profesional por alguno de los medios previstos en los artículos 87 y 89 de la LCSP y que se especifiquen en la cláusula 10 del presente pliego En las Uniones Temporales de Empresas, a efectos

honetako 10. baldintzan jasotako bideetako bat erabiliz. Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, horien kaudimena zehazteko kide bakoitzaren ezaugarriak metatuko dira (HAKLAOaren 24.1. artikulua). Espainiarrak ez, baina Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako lizitatzaileek, Espainian sailkatu gabe daudenean, sailkapenaren ordez aurkeztu beharko dute beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere SPKLren 87. eta 88. artikuluetan jasotakoaren arabera eta kontratazio organoak baldintza agiri honetako 10. baldintzan ezarritako bitartekoak erabilita. Ondorio horietarako, kontratatzeko baimena duten enpresariei buruz Europar Batasuneko estatu kideek ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko ardura duten organoek emandako inskripzio ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria ematen duen estatu kide batean kokatutako enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela horietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez. Era berean, berdin uste izango da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero, baldin eta horiek betetzen badituzte lizitatzailea kokatutako estatu kideko legediaren arabera emandako ziurtapen arau europarrak. Aurreko atalean aipatutako dokumentuetan adierazi beharko dira enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea eta sailkapena lortzea ahalbidetu duten erreferentziak.		de determinación de su solvencia, se acumularán las características de cada una de las integrantes de la misma (art 24.1 del RGLCAP). Las licitadoras no españolas que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, caso de no hallarse clasificadas en España, deberán presentar, en sustitución de la clasificación, la documentación acreditativa de su solvencia económica y financiera y técnica en la forma establecida en los artículos 87 y 88 de la LCSP, y por los medios previstos por el órgano de contratación en la cláusula 10 del presente pliego. A estos efectos, los certificados de inscripción, expedidos por los órganos competentes de la llevanza de las listas oficiales de empresarios y empresarias autorizadas para contratar establecidas por los Estados miembros de la Unión Europea, referidos a empresarios y empresarias establecidas en el Estado miembro que expide el certificado, constituirán una presunción de aptitud con respecto a los requisitos de selección cualitativa que en ellos figuren. Igual valor presuntivo surtirán, respecto de los extremos en ellos certificados, las certificaciones emitidas por organismos de certificación competentes que respondan a las normas europeas de certificación expedidas de conformidad con la legislación del Estado miembro en que esté establecida la licitadora. Los documentos a que se refiere el apartado anterior deberán indicar las referencias que hayan permitido la inscripción del empresario o empresaria en la lista o la expedición de la certificación, así como la clasificación obtenida.
4.- Kanpoko baliabideen bidezko kaudimena egiaztatzeko (SPKLren 75. artikulua), erakunde bien idatzizko konpromisoa aurkeztuta frogatu beharko da benetan dituztela giza baliabideak eta baliabide materialak kontratua egikaritzeko. Lizitatzaileak bere kaudimena egiaztatzeko		**4.- La acreditación de la solvencia mediante medios externos** (art.75 LCSP), exigirá demostrar que para la ejecución del contrato dispone efectivamente de esos medios humanos y materiales mediante la presentación del compromiso por escrito de dichas entidades.

aurkeztutako baliabide berekin egikarituko du kontratua. Aurreikusi ezindako arrazoiengatik baliabideak ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere administrazioak baimenduta.		La licitadora ejecutará el contrato con los mismos medios que ha aportado para acreditar su solvencia. Solo podrá sustituirlos, por causas imprevisibles, por otros medios que acrediten solvencia equivalente y con la correspondiente autorización de la Administración.
5.- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean egoteari buruzko ziurtagiriak.		**5.- Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.**
6.- Berdintasun-plan bat izatea justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute 50 langile baino gehiago dituzten enpresek, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 22ko 3/2007 Lege Organikoko 45. artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Lortu beharreko berdintasun helburu zehatzak eta horiek lortzeko hartu beharreko estrategiak eta jardunak finkatuko dira plan horretan, eta sistema eraginkorrak ezarriko dira finkatutako helburuei jarraipena egin eta horiek ebaluatzeko.		**6.-** Las empresas de más de 50 trabajadoras o trabajadores deberán presentar la **documentación justificativa de contar con un plan de igualdad** en aplicación de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. En dicho Plan se fijarán los concretos objetivos de igualdad a alcanzar, las estrategias y prácticas a adoptar para su consecución, así como el establecimiento de sistemas eficaces de seguimiento y evaluación de los objetivos fijados.
7.- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren mendeko jarduerak egiten direnean: urteko ekitaldiko alta, edo azken erreziboa, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala badagokio, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena**.**		**7.- Cuando se ejerzan actividades sujetas al Impuesto sobre Actividades Económicas**: alta referida al ejercicio corriente, o último recibo, junto con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado Impuesto y, en su caso, declaración responsable de encontrarse exento.
8.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA, ustiapenekoa, patronalekoa, gurutzatua eta amaitutako lanena eginda izatearen agiria.		**8.- Justificante de suscripción del SEGURO DE RESPONSABILIDAD CIVIL**, en sus vertientes de explotación, patronal, cruzada y de trabajos terminados.
9.- Kontratuaren helburu den jarduera egingo duten langileei aplikagarri den **hitzarmen kolektiboa adierazi beharko da.**		**9.- Indicar el convenio colectivo que** es de aplicación al personal que presten la actividad objeto del contrato.
11.- Zerbitzura atxikitako langileen zerrenda: koordinatzailearen euskara-mailari buruzko egiaztagiria eta etxez etxeko langileen euskara mailari buruzko adierazpena.		**11.- Relación del personal adscrito al servicio: acreditación del nivel lingüístico de la coordinadora y declaración del nivel de euskera de las auxiliares domiciliarias.**

22.2.2.- Aurreko guztia esanda, Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro Orokorrean edo Estatukoan inskribatuta izatearen ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzaileak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ezean, ez du aurkeztu beharko erregistroko inskripzioan jasotako gorabeherak egiaztatzeko dokumenturik. Erregistro bi horietako batean inskribatua izatearen ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2. eta 96. artikuluetan eta SPKLa partzialki garatzeko maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako eraginak izango ditu. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera, bertan adierazitako egoerak aldatu ez direla adierazten duen erantzukizunpeko aitorpena ere gehitu beharko da.		**22.2.2.**- No obstante, lo anterior, la presentación del certificado de inscripción en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco o del Estado, dispensará a la empresa licitadora, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, de presentar los documentos acreditativos de las circunstancias cuya inscripción consta en el registro. La presentación del certificado de inscripción en uno de estos Registros, tendrá los efectos previstos en el artículo 87.2 y 96 de la LCSP y en el 19 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la LCSP. Los certificados deberán acompañarse de una declaración responsable en la que se manifieste que las circunstancias reflejadas en el certificado no han experimentado variación.
Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioan ez denean jasotzen egiaztatu beharreko eskakizunen bat, SPKLren aurreikusitako bideetako batetik justifikatu beharko du enpresak. Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dagoenean, edo Europako Batasuneko estatu kide bateko datu basean agertzen denean enpresaren espediente birtual, dokumentu elektronikoen biltegiratze sistema edo aurrekalifikazio sistema bezala, eta horiek doan eskuragarri egon aipatutako organoentzat, ez da beharrezkoa izango leku horietan izena emanda dagoela justifikatzeko dokumenturik edo dokumentu bidezko beste frogarik aurkeztea. Bakarrik, lizitatzaileak berariaz adierazi beharko du zein erregistrotan edo datu basean dagoen inskribatuta.		Cuando en la inscripción del Registro Oficial de Licitadores y Empresas apuntada no conste alguno de los requisitos que deba acreditar, la empresa deberá justificarlos por alguno de los medios previstos en la LCSP. Cuando la empresa esté inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligada a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares, siendo únicamente necesario la manifestación expresa por parte de la licitadora de su inscripción en el Registro o base de datos correspondiente.
22.2.3.- Aurreko bi ataletako dokumentazioa ezarritako epean behar bezala aurkezten ez bada,		**22.2.3.**- De no cumplimentarse adecuadamente, y en el plazo establecido, la presentación de la

ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3a eskatuko zaio, BEZa gabe, zehapen kontzeptuan, behin-behineko bermetik, eratuta egongo balitz, kobratuko dena lehendabizi. Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, dokumentazio berbera eskatuko zaio eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileari, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki (SPKLren 150.2 artikulua).		documentación referida en los dos apartados anteriores, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía provisional, si se hubiera constituido. En el supuesto señalado en el párrafo anterior se procederá a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas (art. 150.2 LCSP).
22.2.4.- Baldintza honetan adierazitakoa epe barruan betetzen ez duen lizitatzaileari, dolo, erru edo zabarkeriaz jardun baldin badu, kontratatzeko galarazpena ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusiaren arabera.		**22.2.4.-** La licitadora que no cumplimente lo establecido en esta cláusula dentro del plazo señalado mediando dolo, culpa o negligencia podrá ser declarada en prohibición de contratar según lo previsto en el artículo 71.2 a) de la LCSP.
23. BALDINTZA. Behin betiko bermea.		**CLÁUSULA 23ª. Garantía definitiva.**
